



HAL
open science

Liburu ikertzea: Xabier Artiagoitia "Hatsarreak eta parametroak lantzen"

Ricardo Rikardo, R. Etxepare

► **To cite this version:**

Ricardo Rikardo, R. Etxepare. Liburu ikertzea: Xabier Artiagoitia "Hatsarreak eta parametroak lantzen". Lapurdum, 2001, VI, pp.439-450. artxibo-00410496

HAL Id: artxibo-00410496

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00410496>

Submitted on 21 Aug 2009

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Rikardo Etxepare

(CNRS, IKER, UMR 5478)

Liburu ikertzea : Xabier Artiagoitia
Hatsarreak eta parametroak lantzenEuskal Herriko Unibertsitatea eta
Arabako Foru Aldundia, 2000, 446 orr.

Gramatika sortzaileak bide luzea egin du honezkero gure artean, eta esan genezake egun zabalduen den ikermoldea dela bai hemen, eta orohar, baita hemendik kanpo ere. Patxi Goenagaren *Gramatika Bideetan* (1980) klasikotik Artiagoitia irakasleak plazara berri duen *Hatsarreak eta Parametroak* honetaraino, hala ere, ez dira ugari izan (nolabait esatearren) ikermolde hedatu honen berri xehe emateko eginak izan diren liburuak, euskaraz. Sintaxiaren alorrera mugatuaz, eta Goenagarenaz aparte, Itziar Lakak itzulitako Lasnik eta Uriagerekaren *GB Ikastaro Bat* ezaguna eta oinarritzko zenbait gai tratatzen dituzten Goenagaren (1986) eta Salabururen (1987,1989) aspaldiko lan bildumak besterik ez genituen. Urtetako hutsarte batzera dator beraz, argitara berri den *Hatsarreak eta Parametroak* hau, eta esku ezin hobea gainera : ofizioaren nekeak aspaldi probatuak eta gaiaren zokoak ondo miatuak dituen Xabier Artiagoitia, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslearenetik, alegia.

Liburua mardula da (446 orrialde), eta ez gaingiroki irakurtzen diren horietakoak. Arrazoiak bitarikoak dira : batetik, liburua euskal sintaxiak azken hamar-hamabost urteetan eman duenaren sintesi lan gisa pentsatua izan delako, eta ez bakarrik diziplinaren bilakaera eta oinarrien azalpen orokor gisa. Bestetik, egileak aitortzen duen bezala, liburua ez delako "txoil deus ez dakitenentzako" egina, baizik eta sintaxiarekin eta gramatika sortzailearekin gutxieneko ezagupidea egina dutenentzako (egileak liburua EHUko Euskal Filologia lizentziaturako laugarren mailako eskoletarik sortua dela esaten digu). Liburua nahikoa modu tradizionalen antolatua dago : gramatika sortzailearen oinarrian diren ideien azalpen orokor baten ondoren (lehen atala), Gobernu eta Uztardura ereduaren modulu ezagunen errepaso egiten da : Perpaus Egitura (bigarren kapituluak), Hiztegia eta Theta Teoria (hirugarrena), Kasu Teoria eta Ergatibitatea (laugarrena), Mugimendu Teoria eta NZ-hitzen mugida (bostgarrena), Uztardura Teoria (seigarren kapituluak). Zazpigarren kapituluak buru mugimenduari eta sintaxiaren eta morfologiaren arteko erlazioei heltzen die, azken sei-zazpi urteotan garatu den programa minimalistaren ildotik.

Lehen kapituluak, **Hatsarreak eta Parametroak ikermoldearen oinarritzko ideiak**, gramatika sortzailearen azpian dagoen ikusmoldea azaltzen du : ikerketa bide hau mugatzen duten galderak (zer den hizkuntza bat, nola jabetzen garen hartaz, nola erabiltzen dugun, nola sortu zen espeziean eta azkenik, nola gauzaten den burmuinean), modularitatearen eta hizkuntzaren beregaintasunaren tesia (1.2.), barne eta kanpo hizkuntzaren arteko diferentzia (ingelesezko *I-language* eta *E-language*), hiztun idealaren kontzeptua eta onargarritasuna eta gramatikaltasunaren arteko diferentzia (1.3.), hizkuntz jakintzaren eta haurrak ingurune linguistikotik jasotzen duen input urriaren arteko jauziaren handia, Chomsky-k Platon-en problema deitu zuena eta sortzezkotasunaren hipotesia bermatzen duena (1.4.1.), hizkuntzen arteko bereizketa eremua eta haren mugak (hatsarreen eta parametroen arteko oreka) (1.4.2.), gramatika partikularren eta gramatika unibertsalaren arteko erlazioa (egokitasun deskriptibo eta teorikoaren arteko tenkaren auzia) (1.4.3.), eta azkenik, gramatikaren antolaketa orokorren lehen itxuratze bat (1.5.). Atala ondo idatzia dago eta argia da azalpenetan, nahiz eta gramatikagintza sortzailearen aitzin uste guztiak atal bakar batean bildu nahiak nabartasun eta dispersio itxura pittin bat ematen duen batzuetan. Deus ere aipatze aldera, zenbait kontzeptuk nere ustez formulazio laxoegia dute beren zuzenean. Horietakoa bat, **gramatikagintzaren jomugari dagokio**. Egileak honelaxe dio : “Burmuinaren egoerek ardura diote hizkuntzalari chomskyarrari, hizkuntz gaitasuna **giza burmuinaren osagaietariko bat den aldetik**” (19. orr.). Orobat “zer da hizkuntz bat jakitea” **galderari** ematen zaion erantzunean (20. orr.) : “**halako hizkuntz jakin bat** barneratu duen hiztun baten burmuin-egoeraren teoria”. Edota 24. orrialdean : “**Gramatikaren baieztapenak gogoaren teoriak barne hizkuntzari**, hots, burmuinaren egiturei **buruz egiten** dituen baieztapenak izango dira.” Hori guziaz egia da, eta Chomsky-k hizkuntzalariaren ikerketa gaiaren jomuga aipatzen duenenan komunzki *gogo/burmuina* terminoa erabiltzen du. Chomsky-k dioen bezala, fengoaiaren fakultatea giza biologian erroturiko ahalmena da, eta giza-burmuinaren antolamendu bereziaren emaitza. Baina hizkuntzalariak ikeretzen dituen gogo atalen propietateak zuzenean burmuinaz predikatzen direla esatearekin batera, beharbada ez zen soberan egongo aipatzea ere burmuina delakoak badituela analisi maila desberdinak, elkarrekin nahasi behar ez direnak. Chomsky-ren hitzetan : “Burmuina maila desberdinetan iker daiteke : atomoen mailan, zelula, zelula-multzoen eta neurona sareen mailan eta baita errepresentazio-konputazio sistemen mailan ere” (Chomsky, 1993, 93. orr.) Hau pellokeria bat baino zerbait gehiago da, batetik errepresentazio-konputazio sistema analisi maila berezi eta beregaineko gisa ezartzea hau **jakin bat** delako. Chomsky bera gainera, ezkor agertzen da maila arteko ustezko loturabideen inguruan. *Gogo/burmuin* terminoaren erabilera, beraz, ez da axolarik gabea, Chomsky-z **denaz bezanbategian**.

Formulazio laxoegia duen bigarren kontzeptua, lehen atal honetan, Logika Formaren definizioa da. Egileak LF “perpausen interpretazioa eta kontzeptualizazioa jasotzen duen maila” dela dio (34. orrialdea), eta agian egokiagoa litzateke esatea Logika Forma gramatikak interpretazio moduluari eskuetaratzen dien egitura sintaktikoa dela, interpretazioa neurri handi batean, baina ez guziz, determinatzen duena.

Bigarren kapitulua, perpaus egiturari dagokiona, kategoriaren nozioarekin (2.2.0) eta sintagma eta osagaien eraketari buruzko X-barra eskemaren hipotesiarekin hasten da (2.2.1 eta 2.2.2). Honen ondoren, izen sintagmatik hasi eta perpaus jokatuetaaraino aurkitzen diren sintagmen oinarritzko egiturak agertzen ditu (izen sintagma eta Artiagoitiak berak berriki ikertu duen determinatzaile sintagma, inflexio eta konplementatzaile sintagmak, eta aditz sintagma eta posposizio sintagmak). Hirugarrenik, balio sintaktikoa duten egitura harremanen gaineko azpi atalak datoz, o-komando erlazioa eta gobernu erlazioa aurkezten dituztenak. Bukatzeko, Kayne-ren antisimetriaren hipotesiaren berri laburra ematen da.

Ohiko bideari segituaz, osagaiaren nozioa egitura erizpideen bitartez justifikatzen da. Osagaien presentzia salatzen duten fenomenoei dagokienean (koordinazioa, ordezkapena, mugimendua, elipsia, galdera-erantzun jokoak, partikulen kokapena) adibideak ez dira beti ondo aukeratuak. Honela, ordezkapenaren kasuan, honako adibideak ematen dira (43.orr.) :

- (1) a. Diputazioek aho batez onartu dute...
 b. Nola onartu dute diputazioek... ?
 c. *Nola onartu dute batez...

Aho batez segidak osagai bat eratzen duela erakusteko, *nola* bezalako ordezkapen forma batek ezin zatitua duela agertzen da. Baina jakina, *nola* batek sekula ez lezake *aho* bezalako zerbait ordezkatu, *aho* izena osagai baten barnean egon ala ez.

Koordinazioaren kasuan, esenplua hau xe da (44.orr.) :

- (2) Diputazioek [legearen aurreproiektua] eta [errepide gehiago egingo dituztela] onartu dituzte

(2) kategoria bereko osagaiak bakarrik koordina daitezkeela erakusteko baliazten da. Kategoria desberdintasunaren bitartez etsenpluaren onargarritasuna esplikatu daitezkeen neurrian (hor DS eta KompS koordinatzen saiatzen ari gara), koordinazioak kategoria nozioaren eragin-kortasun sintaktikoa erakusten du. Hala ere, badirudi hemen arazoa beste bat dela, eta perpaus-ek konjuntatzeko duten zailtasunarekin lotua dagoela :

- (3) a. Diputazioek [legearen aurreproiektua berehala prest egongo dela] eta [errepide gehiago egingo dituztela] onartu dute/*dituzte
 b. Diputazioek [legearen aurreproiektua] eta [errepide gehiago egingo dituztela] onartu dute.

Izen sintagmaren barne egituraz diharduela, eta X-barrak bereizten dituen osagarri/espezifikatzaile erlazioak identifikatu asmoz, egileak jeneralizazio hauxe proposatzen du : "osagarriak I-tik hurrago behar du espezifikatzaileak baino, harekin apurtu ezinezko l'osagaia osatzen duelako edo." Horren adibidetzat haren (37) enenpluak (diakritikoak egilearenak dira) (55.orr.) :

- (4) a. Valverderen Atxagaren erretratua
- b. *Atxagaren Valverderen erretratua (Valverde erretratugilea izanik)
- (5) a. Aitaren berebilaren erosketa
- b. *Berebilaren aitaren erosketa (Eguzkitza, 1993)

Hainbat hiztunen belarriaren arabera, ordea, bada diferentzia nabarmen bat (4) eta (5) en artean : (4) b guziz naturala da ; (5) b berriaz, ezinezkoa. Diferentzia noski, osagaien ardatz den izenaren nolakotasuenan dago : eventua izaera eta argumentu egitura duen erosketa batetik ; emaitza huts den erretratua bestetik. Antzeko fenomenoak gertatzen da ingelesez (Grimshaw, 1990, 145) : egile erroldunaren lekualdaketa (estraposizio bidez) posible da izen hutsekin, baina ez aditzetik eratorritako izenki batekin :

- (6) a. An attack by the enemy occurred
- b. An attack occurred by the enemy
- c. *The destruction of the city occurred by the enemy

Besterik da, noski, zergatik gertatzen den horrelakorik.

Hirugarren kapitulu bikaina. Hiztegia eta Theta-Teoriari buruzkoa da, eta segida natural bat dauka Kasu Teoriari buruzko laugarrenean. Hirugarren atal hau lexikoiean gordetzen diren tasunen eztabaida orokor hatekin hasten da. Egileak hautapen tematikoa eta kategoria hautapenaren arteko diferentziak tratatzen ditu, eta argumentu-egitura eta theta errolen kontzeptuen artean lehen bereizketa egiten. Argumentu egituraren nozioa aurkezteko Grimshawren predikatuen sailkapena erabiltzen du. Egileak, izendatuki, alde batera uzten ditu dimentsionalitate edo tipo semantikoekin zer ikusia duten hautapen galdakizunak (Zucchi 1989, Asher 1993 edo Ormazabal 1995 lanen zentzuan, hau da, proposizioa, eventua, galdera, gertatua bezalako dimentsionalitate desberdineko tipo semantikoak), nahiz eta gero theta hautapenaren sailean berragertzen diren (115.orr.). Egitura lexiko-kontzeptualen izaerari buruzko azpiatal labur bat ere bada (3.1.3.). Sarrera lexikoen lehen itxuratze honen ondoren eta argumentu eta predikatuen arteko diferentzia orokorrak agertu eta gero, egileak argumentu egitura sintaxi egituran nola islatzen den aztertzen du. Bertan, Marancz-en adibide klasikoaren (1984) egokitzapen eder baten bidez theta errolen ezarpen konposizionala erakusten da (123.orr.) eta Baker-en Theta Ezarpenaren Uniformetasunaren Hipotesia aurkezten da. Islapen Hatsarrearen (Projection Principle, Chomsky, 1981) eta harekin loturiko zenbait kontzepturen

inguruko eztabaidaren ondoren (3.4.) egilea aditzaz bestelako predikatuen propietateen azterketari ekiten dio (izenak, adjektiboak eta posposizioak). Bereziki interesgarria da hemen lehenagotik Artiagoitiak (1997,1998) landua duen DS predikatuen analisia, zeinen arabera determinatzailearen agertzea bi faktoreren mendean baitago : batetik predikatua izaki mailakoa izatea; bestetik, eta partizipioekin batera agertzen denean, eventua burutua izatea (151.orr.).

Laugarren kapitulua, **Kasu Teoria eta Ergatibitatea**, aurrekoaren luzapen naturalizat jo dezakegu, eta argumentu egituraren sintaxi islapena aztertzen du, Kasuaren teoria tarteko. Egiturazko kasua eta berezko kasuak bereizi ondoren, egilea euskarazko predikatu iragangaitzen sailkapen dagoeneko ohikoa egiten du, ez-akusatiboan eta ez-ergatiboan artean, Perlmutter, Burzio eta Levin-en lanetatik abiatuz. Azken honen tesia, zeinaren arabera aditz inakusatiboan saila NOR aditz formen sail berbera den, kritikatzten da. Euskararen kasu sistema ere aztertzen da, ergatibitatearen parametroaren ikuspegitik, eta ergatibitate morfolo- gikoa eta sintaktikoa bereizten dira (euskara lehen sailari dagokiolarik, Ortiz de Urbina, 1989). Atal honek i goera aditzen eztabaida interesgarri bat dakar (berez Artiagoitia 1999ren laburpena). Salaburu-k aspaldi xamar (1987) aztertutako *irudi* aditzaren erabilera zenbaiten inguru- koa :

(10) Apaiz honek iduri du Apezpikua oso haserre dagoela

(10), guziz bitxi egiten dena hiztun gehienentzako, onargarria da hiztun talde batentzako. Hiztun batzuentzat ematen du *irudi* aditzak zinezko subjektu tematikoa duela. Subjektu tematiko honek mendeko perpauseko subjektua kontrolatzen du. Honela esplikatzten dira bigarren pertsonako kasuak :

(11) Zuk [pro gaisorik zaudela] ematen duzu

Hartara, Artiagoitiaren ondorioa da euskarak badituela bi sarrera *irudi* aditzari dagozkionak (182.orr.), lehena bitxitasun tipologikotzat har genezakeena :

(12) a. iduri, A : gaia, proposizioa
b. irudi, A : -TH, proposizioa

(10) bezalako kasuak baina, ez dira agian hain bakan munduko beste hizkuntzetan : Rothstein-ek erakusten duen bezala (2001, 189.orr.) *irudi* bezalako aditzek subjektu lexikoa izan dezake- te, lexikoa izateak berez tematikoa izatea ez dakarrelarik. Honelakoetan baina, *irudi* aditzak ez du juntagailu ohikoa hartzen :

(13) John seems as if his baby kept him up all night

Baliteke (10) en azpian dagoen egitura (12) ren parekoa izatea. (12) bezalako etsenpluetan *John*-ek kasu nominatiboa du, *seems*-ek ezarria, baina bere lotura aditzarekin topiko batena bezain lausoa da (*Rothstein*-ek izan ere, topikalizazio berezi baten gisa hartzen du).

Nago, gainera, portaera hau ez ote den *irudi* aditzaz harat ere hedatzen. Har, esate baterako, *merezi izan*, zenbait hiztunen ahotan. Lehen etsenpluak i-goera aditza peto petoa ematen du. Bigarrenak kontrol egitura baten itxura guztia dauka. Beste biak berriz, ez dira ez bat ez beste :

- (14) a. pro merezi du [norbait joatea]
 b. [(*norbait)/PRO joateak] merezi du
 d. Jonek [norbait/pro haraino joatea] merezi du
 e. Zuk [pro/norbait haraino joatea] merezi duzu

Bostgarren kapituluak, **Mugimendu teoria eta NZ-hitzen mugida** izenburua du. Lehenbiziko azpiatalek oinarrizko kontuak tratatzen dituzte : mugimenduaren existentzia eta beronen izaera ziklikoa (1.1.), eta aztarnen justifikazio teoriko eta enpirikoa (1.2.). NZ-mugidariak ez duten hizkuntzen bitartez (Txinerazko etsenpluak erabiltzen dira hemen) Logika Forma errepresentazio mailaren aurkezpena egiten da (1.3.). Hurrengo azpiatalak, operadore-aldagai egituren saila zabaltzen dute erlatibagintzako operadore mugimendua aztertuz. NZ-mugidaren eta erlatibagintzako mugidaren arteko paralelotasunak frantsesezko *iraultze estilistikoaren* (*stylistic inversion*) eta irlandararen konplementatzaile jokoaren bitartez (McCloskey, 1979) erakusten dira. Kapituluaren hasieran Chomsky-ren "On Wh-movement" (1977) hizpidera ekartzen denez gero, beharbada ez zatekeen soberan izango bestelako operadore-aldagai egiturak iragaitzean bederen aipatzea, hala nola konparazio egiturak eta infinitibo-zko erlatiboak.

1.6. azpiatal luzeak mugimenduaren gaineko murriztapenak tratatzen ditu, ikerketa eremu honen bilakaera historikoaren ildoari segituaz. Honela, hurrenez hurren datoz Ross-en lehen muga kategoriak (1967), Chomskyren Azpikotasunaren Baldintza (1973), Kategoria Isilaren Hatsarreaken formulazioa ekarri zuten kanporaketa asimetriak (Chomsky, 1981 eta ondorengoak), Huang-en Ateraketa Eremuen Gaineko Baldintza (1982), Chomskyren saioa azpikotasun eta gobernu hertsidurak formulazio bakar baten bitartez esplikatzeko (Barriers-eko sistema, edo Artiagoitiak bataiatzen duen bezala Behaztopo sistema, 1986) eta azkenik Rizzi-ren Hurkotasun Erlatibatuaren Hatsarrea (1990). Etsenpluak ondo aukeratuak daude (irakaslearentzat biziki lagungarri izango dena), eta gaiak dituen konplexutasunak ez dira isilbidez saihesten, batzutan soluziobideak eta hiztunen senaren nondik norakoak zabalik uzten direlarik. Egileak kapitulu hauxe aukeratu du egitasmo minimalista gaingiroki bada ere aurkezteko (1.6.5. azpiatala), azpian diren intuizioei areago begiratuaz, egungo eztabaidaren

gorabeherei baino. Aurkezpen hau gehienbat Mugidarik Laburrenaren Baldintzara eta Kateen Uniformetasunaren Printzipiora mugatzen da (Chomsky, 1993, 1995).

Bostgarren atalaren bigarren zatiak foko egitura sintaktikoak ditu mintzagai. Egileak Altuberen arau deskriptibo ezagunaren funtsa auzitan jartzen du (hor Hídalgoaren lana aipatu beharko litzateke, 1995), baina azkenean, eztabaidarako aukeratutako fenomeno multzoa hurbiletik segitzen dio delako Altuberen legeari (fokoaren aditz aurreko posizioa, aditzaren ondokotasun derrigorrezkoa). Egia da halere, Artiagoitiak NZ-mugidaren eta fokoaren arteko paralelotasunak bilatu nahi dituela espreski, eta NZ-mugidak ordenu hertsiaigoa ezartzen duela perpauseko elementuen artean. Interegarria da hartara, Altuberen arauak perpaus bakunen baitan duela indarrrik gutxien. Hitzun askorentzat aditzaren ondoko fokoa guziz zilegi da, aldaera estilistiko gisa bederen :

(15) Jonek eman dio MUSU HAUNDI BAT Mireni

Bizkitartean, fokoak perpaus arteko besarkadura baldin badu, hau da NZ-hitzak bezala, operadoreen gisan portatzen bada, orduan aditz aurreko posizioa eta aditzaren ondokotasuna derrigorrezkoak dira :

(16) a. *Jonek esan dio BIZIKLETA HAUNDI BAT Mireni erosi duela
b. BIZIKLETA HAUNDI BAT esan dio Jonek Mireni erosi duela

Artiagoitiak aditza eta fokoaren arteko loturaren analisi sintaktiko desberdinak errepa-satzen ditu : Ortiz de Urbinaen saioa, ondokotasun erlazio hori Aditza Bigarren deituriko fenomeno tipologikora hurbiltzeko (2.1.2.), Lakaren Sigma kategoria, ezeztapena, baieztapen enfatikoa eta ezkereratutako fokoa bilduko lituzkeena eta Denbora buruaren mugimendua behartzen duena, eta azkenik Laka eta Uriagereka (1987) eta Uriagerekaren hipotesia (1999), zeinen arabera ondokotasuna ez baita konfigurazio jakin batetik segitzen (espezifikatzaile-buru konfigurazioa), baizik eta tartean deus ere egotea galerazten duen propietate morfosin-taktikoetarik (Fukui eta Speas-en proposamen bati jarraituz (1986). Agian merezi zukeen hemen derrigorrezko ondokotasun hori auzitan jartzen duen zenbait gertakari agertzea. Esate baterako, ezaguna da ezeztapenaren ondoan fokoak eta aditz lexikoak ez dutela zertan elkarren ondoan egon behar, ez eta fokoak eta aditz laguntzaileak ere (Etxepare eta Ortiz de Urbina, 1999) :

(16) Ez dio JONEK Mireni lore sorta hori erosi, Aitorrek baizik.

Atal luze eta interesgarri hau topikalizazioaren eztabaida labur baina jakingarri batekin bukatzen da (3.).

Seigarren kapitulua, Uztardura Teoriari buruzkoa, izenordainen, anaforen eta erreferentzia adierazpideen distribuzio propietate nagusien lehen analisi batekin hasten da. O-komando erlazioa berriz ere hartzen da, eta haren bitartez Uztardura Baldintzen lehen formulazio bat proposatzen. Handik abiatuta, egileak Chomsky (1981) etik Chomsky (1986) ra doan bidea aztertzen du, uztardura eremuen formulazio sofistikatuagoak behartu dituzten problemak agertuaz. 6.5. azpiatalak PRO teorema aurkezten du. Kapituluak Rebuschiren lan interesgarriaren (1988, 1989) sintesi bat dakar, *elkar eta bata bestea* anaforen uztardura eremu desberdinak batetik, eta *berelharen* izenordainki posesiboena bestetik, erakusten dituena. Atalak uztardura teoriak GB teoriaren baitako beste eremuetako fenomenoak esplikatzeko duen baliagarritasuna agertzen du (bereziki Larson-en osagarri biko aditzen barne egitura, euskarazko datibo-absolutibo konfigurazioak azaltzeko egokitzen dena (6.7). Azken azpiatalak uztardura baldintzen aplikazio maila eztabaidatzen du (6.8).

Zazpigarren kapitulua da, agian, irakurlearen aldetik arretarik handiena eskatzen duena, **Aditzaren Mugida, Komunztadura eta Kasuaren Erkatzea** izenburua duen atal honen azpiko giltza, aztergaiak eta proposamen desberdinak lotzen dituen haria, morfologia eta sintaxiaren arteko erlazioarena da. Zenbateraino morfologikoki konplexuak diren elementu morfosintaktikoak sintaxiaren arau hertsien bitartez esplikatzen ahal diren, edo zenbateraino jo behar dugun morfologia modulu beregaineko batera. Euskal sintaxiaren azken urteetako joera nagusia (eta orohar, GBtik minimalismora doan ikerbide osoarena) lotura aski zuzen baten aldeko hautua izan denez gero (Baker-en Ispiluaren Hatsarrea flexioaren dermiora ekarriaz), atala ikusmira ezin hobea da hainbat eremu itxuraz bereziren joko konplexua argitara ekarri nahi izan duten lanak eztabaidatzeko, batzutan zinezko *tour de force* sintaktikoak direnak. Atala Emonds-Pollock hipotesiaren (eta hura justifikatzen duten datuen) deskripzioarekin hasten da. Pollock-en hipotesiak Inflexio Sintagmaren barnean biltzen diren tasunen bereizketa proposatzen du, halako moldez non denbora, aspektu edo komunztadura tasunek bakoitza beren proiektzio sintaktiko propioa islatzen duten. Pollock-en hipotesia aintzat hartu eta gero, haren ondorio zenbait tratatzen dira : batetik Chomsky 1991ren perpaus egitura hedatua, Subjektu Komunztadura Buruaren alde egiten duena, eta bestetik Ouhallaren (1991) Ispiluaren Hatsarrearen interpretazio hertsia, zeinen arabera hizkuntzatik hizkuntzara adizki jokatueta aurkitzen diren afixuen posizio desberdinak perpaus egitura mailako erlazio hierarkikoen islada diren. Lehen azpiatala Chomsky (1993) ko morfologia eta sintaxiaren arteko erlazioaren ikuspegiarekin bukatzen da. Ikuspegi honetan, morfologia eta sintaxiaren arteko erlazioa ez da hain zuzena, flexio-hizkiak ez baitira zuzenean deribazio sintaktikoan batzen. Aitzitik, adizki jokatuak osorik heldu dira lexikotik, eta beren tasunak perpaus egiturako buru egokiekin *erkatu* behar dira. Bi ikuspegi hauek euskal adizki jokatuaren eta perpaus egituraren azterbideetan beren isla izan dute : lehenaren baitan para liteke esate baterako Lakaren lan garrantzitsua (1993a) adizki jokatuaren barne eraketari buruzkoa (7.2.3), eta bigarrenean Fernandezekin komunztaduraren gauzatze sintaktikoari buruzkoa (1997). Perpaus egituraren nondik norakoarekin loturik dago baita ere argumentuen oinarritzko ordenaren auzia. Atalak

sintesi eztabaida interesgarria dakar (Ortiz de Urbina 1994, Fernandez 1997, Albizu 1997, eta Ormazabal eta Romero 2000 lanetatik) datibo komunztaduraren eta datibozko argumentuen posizio sintaktikoaren inguruan (7.4.2.). Euskararen Kasu sistema ergatiboak ere merezi duen arreta jasotzen du, Chomsky (1993) eta Bobaljken (1993) ergatibitate morfologikoaren interpretazioa azaltzen da, eta euskararen kasu sistema ergatiborako Lakaren egokitzapena (1993b) aztertzen da, besteak beste.

Eduki teorikoaz aparte, liburuak bibliografia zabal bat eskeintzen du, bi zatitan emana. Lehen zatian, ikuspegi orokor batetik idatzitako artikulua eta liburuak biltzen dira: bigarrean, euskarari zuzenkiago lotuak diren lanak.

Liburuaren balorazio gisa, esan behar dut liburuak ez dela bakarrik lagungarri diren horietakoa, baizik eta, areago, luzaroan lagun izango duguna. Artiagoitiaren lana guziz aipagarria da, eta halaxe izango zatekeen gurea bezalako eskasiarik ezagutzen ez duten beste aldeetan ere. Horrekin batera, aitortu behar dut tarteka badudala liburuak bere baitan gehiegi hartzen ote duen kasua. Eskola baten kontestuan zilegi bezain ohiko diren zehar aipamenak (analisi baten luzapen edo aldaera posibleak, honako edo bestelako analisiak suposatzen duen harako erreferentzia) batzutan liburuan testu estatusa hartu ote duten nago. Horrelakoetan, egilea artikulua edo sistema baten mamia laburtu beharrez aritzen dela iruditzen zait, zer hori inoiz ilun xamar egiteraino laburbiltzen duetarik. Tankera hori hartzen diet nik esate baterako, bostgarren kapituluari, Rudin-en NZ anitzen mugimenduaren tipologiaren azalpenari (214. orr), *subjektu vs. osagarria asimetria*-ri dagokion sekzioa, *that/aztarna* efektuaz ari delarik (231. orr), Lasnik eta Saitoren sistemaren deskripzioari (233. orr) edo Chomskyren *Barriers* sistemako adjunkzio aukeren eztabaidari (May-ren lana aipatzen delarik). Erreferentzia horiek egon behar dutenik ez dut ukatuko (lanean sakontzeko nondik nora jo behar den argitzeko beharrezkoak dira), baina testuaren harian emanda berez trinko xamarra den testua moteldu egiten dute.

Bistan da liburu batek (honek edo bestek) ezin duela dena bere baitan hartu. Bada, hala ere, Artiagoitiaren liburuan gutxienez nabarmena den hutsune bat: Kuantifikazioa ez da ezertarako agertzen, Logika Formaren sintaxian rol garrantzitsua izan badu eta badauka ere. Hemen jakina, errua ez da autorearena: liburuak euskal sintaxiaren azken urteotako lanaren sintesia den aldetik, etxeko sintaxiak hartu duen bide meharregiaren berri ematen digu.

Artiagoitiaren lanak dituen alde laudagarrien artean, ezin dugu ahaztu gramatika sortzailearen terminologia (maiz aski bihurria) euskaraz emateko ahalegin berezia, hainbat irakasle borroka etsigarri batetik aterako dituen. Hemen, bataio kontu guzietan bezala, nork gehiago nork gutxiago maiteko ditu, baina ezin aipatu gabe utzi esate baterako, rol tematikoaren izendatze egokia (106-107. orr), Chomskyren *blocking category*-ren ordaina den *behaztopo kategoria*, harako *structure preservation*-ena den *egiturari eutsi hatsarrea*, edo *superiority* terminoari egokitu zaion *goragotasuna*, besteak beste.

Liburu hau dudarik gabe berri ona da euskararen inguruan lanean ari diren hizkuntzalari guztientzako, eta euskal sintaxiak, bere apalean, lortu duen sofistikazio mailaren erakusgarri bikaina da. Lanerako gonbita baizik ez dena, bestalde.

Bibliografia

- ALBIZU, P. (1997) "Generalized Person-Case Constraint : A Case for a Syntax-Driven Inflectional Morphology" In A. Mendikoetxea eta M. Uribe-Etxebarria (arg) *Theoretical Issues at the Morphology-Syntax Interface*. Donostia : *ASJUren* gehigarriak. 1-34.
- ARTIAGOITIA, X. (1997) "DP predicates in Basque", in A. Taff (ar), *Working papers in Linguistics*, Vol 15, Seattle : University of Washington. 161-198.
- ARTIAGOITIA, X. (1998) "Determinatzaile Sintagmaren Hipotesia Euskal Gramatikan", *Uztaro* 27, 33 — 61.
- ARTIAGOITIA, X. (1999) "Subordination", EHUko eskuizkribua, J.I. Hualde (arg) *A Grammar of Basque liburuan agertzekoa*.
- ASHER, N. (1993) *Reference to abstract objects in discourse*, Kluwer.
- BOBALJIK, J. (1993) "Ergativity and Ergative Unergatives" In C. Phillips (arg) *Papers on Case and Agreement II*, Cambridge MA : MIT Working Papers in Linguistics, Volume 19,45-88.
- CHOMSKY, N. (1973) "Conditions on transformations" In S. Anderson eta P. Kiparsky (arg) *A Festschrift for Morris Halle*, New York : Holt, Rinehart and Wilson, 232-286.
- CHOMSKY, N. (1977) "On Wh-Movement" In P. Culicover, T. Wasow eta A. Akmajian (arg), *Formal Syntax*, New York : Academic Press, 71-132.
- CHOMSKY, N. (1981) *Lectures on Government and Binding*, Dordrecht : Foris.
- CHOMSKY, N. (1993) "A Minimalist Program for Linguistic Theory" In K. Hale and S. Keyser (arg), *The View from Building 20*, Cambridge MA : MIT Press. 1 — 52.
- CHOMSKY, N. (1995) *The Minimalist Program*, Cambridge MA : MIT Press.
- EGUZKITZA, A. (1993) "Adnominals in the Grammar of Basque" In J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg) *Generative Studies in Basque Linguistics*, Amsterdam : John Benjamins.
- ETXEPARE, R. eta J. Ortiz de Urbina (1999) "Focalization" J. I Hualde (arg) *A Grammar of Basque liburuan agertzeko*.
- FERNANDEZ, B. (1997) *Egiturazko Kasuaren Erkaketa Euskaraz*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzuak.
- GOENAGA, P. (1980) *Gramatika Bideetan*, Donostia : Erein.
- GOENAGA, P. (arg) *Euskal Sintaxiaren Zenbait Arazo*, Bilbao : UPV-EHU.
- GRIMSHAW, J. (1990) *Argument Structure*, Cambridge MA : MIT Press.
- HIDALGO, B. (1995) "Ohar garrantzitsuak euskararen hitz ordenaren inguru. Euskara, SVO?" *FLV*, 70. 401-420.
- LAKA, I. (1990) *On the Nature of Functional Categories and Projections*. MITko doktorego tesia.

- LAKA, I. (1993) "The structure of Inflection : A Case Study in X0 Syntax" In J.I. Hualde eta J. Ortiz de Urbina (arg), 21-70.
- LAKA, I. (1995) "The blind Case : Burzio's Generalization and Its Image in the Mirror" In E. Reuland (arg) *Workshop on Burzio's Generalization* liburuan agertzekoa.
- MARANCZ, A. (1984) *On the Nature of Grammatical Relations*, Cambridge MA : MIT Press.
- ORMAZABAL, J. (1995) *The Syntax of Complementation : On the Connection between Syntactic Structure and Selection*, University of Connecticut-eko doktorego tesi argitaragabea.
- ORMAZABAL, J. eta J. Romero (1998) "On the Syntactic Nature of the me-lui and the Person-Case Constraint" *ASJU*, XXXII-2, 415-433.
- REBUSCHI, G. (1988) "Defining the three Binding Domains in Basque" *ASJU XXVII-1*, 233-241.
- REBUSCHI, G. (1989) "La problematique de la localité dans la théorie du liage" In P. Salaburu (arg.), 121-141.
- RIZZI, L. (1990) *Relativized Minimality*, Cambridge MA : MIT Press.
- ROTHSTEIN, S. (2001) *Predicates and their Subjects*, Kluwer.
- SALABURU, P. (arg) (1987) *Sintaxi Teoria eta Euskara*, Donostia : EHU.
- SALABURU, P. (arg) (1989) *Sintaxi Teoria eta Euskara*, Donostia : EHU.